

Imanol Alvarez: "Eskubaloia ogibide bihurtu zait"

Hogeita hemeretzi urte ditu ermuar gazte honek. 15 urte zituenetik buru-belarri aritu da eskubaloian. Urteak jokalaria gisa pasa ostean, maiatzean, ohorezko mailako Eibarko Arrate taldearen entrenatzaile izatea eskaini zioten. Ordura arte bere lanbidea zena utzi eta bi urteko eszedentzia hartu du entrenatzaile gisa aritzeko.

-Nola hurbildu zinen eskubaloi mundura?

15 urte inguru izango nituen. Teodoro Zuazuan, oraingo Ongarai ikastetxea dena, ikasten ari nintzela, eskubaloian jokatzen zuen maisu bat izan nuen. Talde bat osatu behar zela eta, izena eman nuen.

-Ondoren talde askotan aritu zara...

Valentzian, Barakaldon, Gasteizen... ondoren Arraten jokatu nuen eta azken urteak Ermuko mutilen taldean eman nituen. Duela lau urte, taldea desagertu eta jokatu gabe egon naiz.

-Entrenatzailea zara orain.

Ermuko nesken talde bat ere zuzendu nuen eta orain Arrate taldearekin ari naiz. Ohorezko mailan ari den taldean, bigarren entrenatzailea naiz eta lehen mailan ari den taldeko entrenatzaile nagusia.

-Zein dohain behar dira eskubaloian jokatzeko?

Jokalaria azkarra izatea beharrezkoa da, abiaduraz zein jokoa irakurri eta erabakiak hartzeko gaitasunean. Fisikoki ere gogorra izatea inportantea da. Kontaktu asko daukan kirola da gurea. Bada kezkatzen nauen beste kontu bat: oraingo gazteek, 22 urterekin lehen mailara iristea lortu ezean, eskubaloia utzi egiten dute. Gora iristeko presa la-

rregi dutelakoan nago.

-Nesken eskubaloia ere goraka doa...

Duela zenbait egun Frantzia eta Errusiako nesken partidua ikusi nuen telebistan. Azken urteotan ikusi dudana partidu ederrena izan da. Askok hobetu dira azken urteotan. Ermuan bertan ere, lan haundia egin da eta emaitzak agertuko dira. Lanik egitean ez bada ez dago emaitzarik.

-Arrate taldeak ze jarraipen dauka Eibarren?

Taldeak azkenaldian emaitza onak lortu ez baditu ere, sailkapenean erdialdean gaude. Errege kopan sartzeko aukerak ere baditugu eta lan txukuna egiten ari garela uste dut. Zaleak partidua ikustera etortzen dira eta giro polita izaten da.

-Eta komunikabide mailan?

Espainiako selekzioa egun, Munduko txapelduna da, ASOBAL liga, munduko eskubaloi liga indartsuena da. Dena den, ia ez gara komunikabideetan azaltzen. Neurri batean, gure errua ere bada uste dut, ez dugulako gure kirola ondo saldu. Halere, jarraipen gehiago izatea eskertuko genuke.

-Ogibidez telebistan egin izan duzu lana...

Arrate taldetik maiatzean eskaintza jaso nuen, munduko eskubaloi liga one-



nean aritzeko aukera zen eta gainera etxe ondoko talde batean... Lana bi urtez utzi eta erronka berriari ekin diot. Betidanik afizio izan dudana, ogibide bihurtu zait. Erronkazalea izan naiz betidanik.

-Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu eskubaloiarri?

Makina bat, bi taldetan ari naiz-eta. Talde nagusiarentzat, bideo irudiak aukeratu, montatu... Bigarren taldearen entrenamendu saioak zuzentzen ditut. Gustuko lanean aldaparik ez ordea.

-Jokatzen ala zuzentzen, non gusturago?

Denbora pasa ahala, entrenatzaile lana gehiago gustatzen zaidala konturatu naiz. Lehen taldean gauzak ez dira hain errezak, jokalariei maila ere hobe da, baina bigarren taldearekin gauzak errezagoak dira.

-Bi urterako zure lana utzi ostean, itzultzeko asmorik?


Nire lanean oso pozik nintzen eta honetan ere oso gustura ari naiz. Aukera izango banu, jarraituko nuke baina beste lanera itzultzea tokatuz gero, ez nuke arazorik izango.

Asier Ibaibarriaga

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona